

EPAIMAHAIAREN AKORDIOA. Akordio honen bidez onartzen dira laguntzako langileen talde profesionaleko mandatariaren (Ordenantza) hautaketa-prozesuaren bigarren ariketaren (berariazko zatia) behin betiko emaitzak, desgaitasun intelektuala duten pertsonak enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesukoak.

Akordio honetan informazio hau aurkituko duzu:

1. Ez da erreklamaziorik aurkeztu bigarren probaren emaitzen behin-behineko zerrendaren aurka; horregatik, epaimahaiak behin-behineko emaitzak behin betikotzat jotzea erabaki du, eta **bigarren ariketaren emaitzen behin betiko zerrenda onartu da.**

Behin betiko zerrendan ikus dezakezu bigarren ariketa gainditu duzun ala ez.

- 2.- Prozeduran jarraitzen duten (lehenengo bi ariketak gainditu dituzten) eta hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabidean euskara-proba egin zutela adierazi zuten pertsona guztiei **dei egiten zaie euskarako 1.hizkuntza-eskakizuneko azterketa egiteko.** Euskara-proba egin behar duten pertsonen zerrenda argitaratu da. Zerrendan zauden kontsultatu dezakezu.



Euskara-proba UNEDen (Vitoria-Gasteiz) izango da **2024ko maiatzaren 28an eta 29an.**

Euskara azterketa egiteko jarraibideak beste dokumentu batean argitaratuta daude.

SMS bat bidaliko da probaren orduari eta bertara sartzeko moduari buruzko informazio gehiago argitaratzen denean albisteen atalean.

3.- Epaimahaiaren akordioaren aurka gora jotzeko errekurtoa jartzeko epea ireki da. Horretarako, hilabeteko epea izango duzu, akordio hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Non ikus ditzaket bigarren ariketaren emaitzen behin betiko zerrendak, euskara proba egitera deitutakoen zerrenda eta proba hori egiteko jarraibideak?

Zerrenda hauek ikusteko IVAP-eko web orrialdean sartu behar duzu:

<https://www.ivap.euskadi.eus/enplegu-ivap/>



Adimen-desgaitasuna duten pertsonak atalean.

< IVAP

Enplegu publikoa

ivap Administrazio Publikoaren Euskal Institutua

Hautanet ▾ Lan-poltsak ▾ Beste deialdi batzuk ▾




Arlo nagusiak

- **Enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta salbuespenekoak**
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak
- **Adimen-desgaitasuna duten pertsonak**
Hautaketa-prozesu berriak
- **Lan-eskaintzak**
Lan-eskaintzen kontsulta, harpidetza egin eta kendu...

Hurrengo pantailan sakatu botoi hau:

Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena

Nabarmenduak

- Hautaketa-prozesuen informazio orokorra
- Konbokatutako hautaketa-prozesuak
- Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena



Hemen, urdinez agertzen den zati horretan egin behar duzu klik,

“Identifikatu hemen” jartzen duen lekuan

Enplegu publiko

Egoitza elektronikoa

HAUTAKETA-PROZESUA

Identifikatu hemen hainbat izapide egin ahal izateko

Identifikazio elektronikoko baliabide baten bidez identifikatu behar da, hautaketa-prozesuaren jarraipena egiteko, erreklamazioak egitea, puntuazioak kontsultatzeko, zerrendak ikusteko eta beste izapide batzuk egiteko.

Deialdiak

Q Bilatu deialdiak

LAGUNTZAKO LANGILEEN TALDE PROFESIONALEKO MANDATARIA

Deitzailea: Administrazio orokorra
Deialdiaren fasea: Erreklamazioak aztertzen

SUKALDEKO LAGUNTZAILEA

Deitzailea: Administrazio orokorra
Deialdiaren fasea: Erreklamazioak aztertzen

Ondoren IDENTIFIKATU botoia sakatu.

Enplegu publikoa

Egoitza elektronikoa

HAUTAKETA-PROZESUAK

Identifikatu hemen hainbat izapide egin ahal izateko

Identifikazio elektronikoko baliabide baten bidez identifikatu behar da, hautaketa-prozesuaren jarraipena egiteko, erreklamazioak egitea, puntuazioak kontsultatzeko, zerrendak ikusteko eta beste izapide batzuk egiteko.

Deialdiak

IDENTIFIKATU


Identifikatzeko metodoak

Gero, **BAKq**-ekin identifikatu behar zara.
NAN zenbakia eta pasahitza eskatuko dizkizute.


Behar bezala identifikatuta zaudenean, zure izena agertuko da goiko aldean, urdin kolorekoa.



Zati horretan bertan, **Nire deialdiak** sakatu, eta nahi duzun deialdia aukeratu behar duzu: **SUKALDEKO LAGUNTZAILEA** edo **ORDENANTZA**. (Gogoratu bi prozesuetan parte hartzen baduzu, bietan begiratu behar duzula. Prozesu bakoitzean prozesu horretako zerrendak bakarrik argitaratzen dira).



Deialdian, eskuineko aldean, **ZERRENDAK ETA JARRAIPENA** izeneko botoi urdin bat agertuko da, sakatu hori.



Ondoren, botoi zuri bat agertuko da: **IKUSI PROZESUAREN HISTORIA**, sakatu hori



Merezimendu-eskabideak aztertzea

IKUSI PROZESUAREN HISTORIALA

IKUSI GUTXIAGO

Hurrengo informazioa agertuko da:

Teorikoak

Emaizten behin betiko zerrenda [REDACTED]

[Emaizten zerrenda](#)

[Probaren behin betiko emaitzak onartzen dituen epaimahaiaren akordioa.](#)

Emaizten behin betiko zerrenda

[Emaizten zerrenda](#)

[Probaren behin betiko emaitzak onartzen dituen epaimahaiaren akordioa](#)

[Euskara-proba egitera deitutako pertsonen zerrenda](#)

[Euskara-proba egiteko jarraibideak](#)

Gora jotzeko errekurtsuaren epea ere agertuko da.

Errekurtsuak behin betiko zerrendara aurkeztea ~~2023/07/31 - 2023/08/31~~

Zer egin dezaket epaimahaiaren akordioarekin ados ez banago?

Hilabeteko epea daukazu gora jotzeko errekursoa jartzeko.

Nola aurkeztu dezaket gora jotzeko errekurtsu bat?



Gorago aipatu dugun bezala, ERREKURTSOA jartzen duen lekuan klikatu behar duzu.

The screenshot shows a user interface with a top navigation bar. On the left, there is a user profile section with a redacted name and some status information. In the center, there is a calendar icon and the text 'Errekurtsoak aurkeztea' with dates '2024/01/26(e)tik 2024/02/26(e)ra'. On the right, there is a vertical menu with several buttons: 'ESKABIDEA', 'DATU PERTSONALAK ALDATU', 'ERREKURTSOA', 'DEIALDIAREN INFORMAZIOA (LEIHO BERRIA)', and 'ZERRENDAK, JARRAIPENA...'. A blue arrow points to the 'ERREKURTSOA' button.

Horri ematen diozunean, nahi duzuna azaldu ahal izateko leku bat irekiko da. Amaitzeko, bidali egin behar duzu.

Noiz hasten da GORA JOTZEKO ERREKURTSOA jartzeko epea?

Akordio hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasten da hilabeteko epea.

Epea ireki arte, aplikazioko botoia ez da agertuko

Norengana zuzendu behar dut gora jotzeko errekurtsoa?



Errekurtsoa Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarengana zuzendu behar duzu.

Gora jotzeko errekurtsoak banan-banan erantzungo dira

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan.

Epaimahai kalifikatzailearen idazkaria